

Euskal AEko landetxeak, apartamentuak eta turismo-aterpetxeak: sarrerak, ostatu-gauak eta okupazio-maila. 2025eko abendua

Nabarmentzekoak

2025. urtea

Sarrerak: Landetxeetan % 6,7ko hazkundera izan dute 2024arekin alderatuta, apartamentu turistikoetan¹ % 29,1ekoa eta turismo-aterpetxeetan % 4,9koa.

Ostatu-gauak: landetxeetan % 6,0ko hazkundera izan da 2024ko datuen aldean, % 15,8koa apartamentu turistikoetan eta % 4,6koa aterpetxeetan.

Batez besteko egonaldia²: 2025ean 2,57 egunekoa izan da, apartamentu turistikoetan 3,01 egunekoa eta turismo-aterpetxeetan 1,80 egunekoa. 2024an batez besteko egonaldia 2,58, 3,36 eta 1,81 egunekoa izan zen, hurrenez hurren.

Okupazio-maila: landetxeetan logelen okupazio-maila 2,4 puntu handiagoa izan da 2024an baino (% 36,3ra iritsi da). Apartamentu turistikoetan apartamentuen okupazio-maila % 71,1ekoa da, 2024an baino 5,2 puntu gehiago, eta turismo-aterpetxeetan plazen araberako okupazio-maila % 38,9ra iritsi da, 2024an baino 0,6 puntu gehiago.

2025eko abendua

Sarrerak: Landetxeetan % 36,2 handitu dira 2024ko abenduko datuen aldean, apartamentu turistikoetan, berriz, % 8,6 eta turismo-aterpetxeetan % 12,5.

Ostatu-gauak: landetxeetan % 23,8 handitu dira 2024ko hilabete beraren aldean; apartamentu turistikoetan, berriz, % 9,2 eta turismo-aterpetxeetan % 16,2.

Egonaldiko batez besteko egun kopurua: 2,14 egun landetxeetan, 3,70 egun apartamentu turistikoetan eta 1,96 egun turismo-aterpetxeetan.

Okupazio-maila: logelen okupazio-maila % 24,7koa izan da landetxeetan; apartamentuetan okupazio-maila % 62,9koa izan da; eta turismo-aterpetxeetan, plazen okupazio-maila % 19,3koa izan da.

¹ Ez dira epigrafe honetan sartzen turismo-erabilerako etxebizitzak, arrazoi turistikoengatik aldi baterako eskaintzen, merkaturatzen edo lagatzen diren etxebizitzak partikularrak.

² Bezeroek, batez beste, gaua ematen duten establezimendu bakoitzean igarotzen duten egun kopurua. Ez da Euskal AEn egun diren denboraren guztizko iraupena.

Azterketa estatistikoa

2025. urtea

Euskal AEko **landetxeetan, 2025. urte** osoan, okupazio-aldagaiek 2024. urtekoek baino balio handiagoak izan dituzte: sarrerak % 6,7 igo dira eta ostatu-gauak % 6,0. Horrela, 2025ean 183.900 sarrera izan dira landetxeetan eta 472.371 ostatu-gau egin dira, Eustaten datuen arabera.

2025ean sarrerak % 10,5 igo dira Araban, % 6,8 Bizkaian eta % 5,2 Gipuzkoan. Ostatu-gauak % 14,1 eta % 6,9 igo dira, hurrenez hurren, Araban eta Gipuzkoan, baina Bizkaian % 0,2 jaitsi dira.

Atzerriko bisitariak Euskal AEko mota horretako establezimenduetako sarrera guztien % 27,3 izan dira 2025ean, 2024an baino % 12,9 gehiago.

Euskal AEko landa-ostatueta sarrerak, ostatu-gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak. 2025

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		gelaka	
	2025	p/p-1 (%)	2025	p/p-1 (%)	2025	2024	2025	p.p. *	2025	p.p. *
EUSKAL AE	183.900	6,7	472.371	6,0	2,57	2,58	31,4	2,2	36,3	2,4
Estatukoak	133.605	4,6	343.908	3,5	2,57	2,60	-	-	-	-
Atzeritarrak	50.295	12,9	128.463	13,5	2,55	2,54	-	-	-	-
Araba/Álava	36.444	10,5	87.124	14,1	2,39	2,32	23,7	3,6	28,2	3,6
Estatukoak	29.524	7,0	68.925	10,9	2,33	2,25	-	-	-	-
Atzeritarrak	6.920	28,7	18.199	27,9	2,63	2,65	-	-	-	-
Bizkaia	55.083	6,8	133.010	-0,2	2,41	2,58	31,0	0,2	35,3	-0,2
Estatukoak	37.226	-1,7	94.999	-4,3	2,55	2,62	-	-	-	-
Atzeritarrak	17.857	30,0	38.011	11,9	2,13	2,47	-	-	-	-
Gipuzkoa	92.373	5,2	252.237	6,9	2,73	2,69	35,6	2,5	41,2	3,5
Estatukoak	66.855	7,3	179.984	5,3	2,69	2,74	-	-	-	-
Atzeritarrak	25.518	0,2	72.253	11,2	2,83	2,55	-	-	-	-

p/p-1: Azken aldian izandako urte arteko aldakuntza-tasa (p), aurreko urteko aldi berarekin alderatuta (p-1)

p.p.*= aurreko urteko aldi balioidearekiko aldea ehuneko-puntutan

Data 2026ko Urtarrilaren 26a

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Euskal AEko landetxeetako batez besteko egonaldia 2,57 egunekoa izan da, 2024an erregistratu ziren 2,58 egunen oso antzekoa. Okupazio-maila, bestalde, % 31,4koa izan da plazen arabera neurtuta, eta % 36,3koa logelen arabera neurtuta, aurreko urtearen aldean ehuneko 2,2 eta 2,4 puntu igo ondoren, hurrenez hurren.

Euskal AEko **apartamentu turistiko**en **2025eko urteko balantzean**, 2024ko datuekin alderatuta, hobekuntza ikusten da, bai sarreren kopuruari dagokionez, bai ostatu-gauei dagokienez. Guztira 276.504 sarrera eta 833.527 ostatu-gau izan dira urte osoan, eta 2024. urtearekiko urteko hazkundeak % 29,1era eta % 15,8ra iritsi dira, hurrenez hurren.

Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak. 2025

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		apartamenduka	
	2025	p/p-1 (%)	2025	p/p-1 (%)	2025	2024	2025	p.p. *	2025	p.p. *
EUSKAL AE	276.504	29,1	833.527	15,8	3,01	3,36	39,6	0,2	71,1	5,2
Estatukoak	162.348	24,0	491.162	12,2	3,03	3,34	-	-	-	-
Atzeritarrak	114.156	37,1	342.365	21,3	3,00	3,39	-	-	-	-
Araba/Álava	9.417	-14,6	115.459	6,0	12,26	9,87	28,8	0,2	71,0	-6,6
Estatukoak	7.658	-18,3	79.048	5,8	10,32	7,98	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.759	5,7	36.411	6,5	20,70	20,54	-	-	-	-
Bizkaia	193.890	35,7	415.932	27,5	2,15	2,28	40,4	0,5	65,9	13,5
Estatukoak	114.394	30,9	236.771	24,6	2,07	2,17	-	-	-	-
Atzeritarrak	79.496	43,3	179.161	31,4	2,25	2,46	-	-	-	-
Gipuzkoa	73.196	21,4	302.135	6,1	4,13	4,72	44,6	-0,7	77,6	2,5
Estatukoak	40.295	18,0	175.342	1,3	4,35	5,07	-	-	-	-
Atzeritarrak	32.901	25,9	126.793	13,4	3,85	4,28	-	-	-	-

p/p-1: Azken aldian izandako urte arteko aldakuntza-tasa (p), aurreko urteko aldi berarekin alderatuta (p-1)

p.p.*= aurreko urteko aldi balioidearekiko aldea ehuneko-puntutan

Data 2026ko Urtarrilaren 26a

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

2025. urte osoan erregistratutako ostatu-gauek gora egin dute —2024an izandakoekin alderatuta— hiru lurraldeetan, maila desberdinean bada ere: % 27,5 Bizkaian, % 6,1 Gipuzkoan eta % 6,0 Araban. Sarreraren kasuan, Araban % 14,6 jaitsi dira, Bizkaian % 35,7 igo dira eta Gipuzkoan % 21,4.

Atzeritar jatorriko pertsonen sarrerak, urtean zehar % 37,1eko igoera izan ondoren, Euskal AEko mota horretako establezimenduetan 2025ean izandako guztizkoaren % 41,3 izan ziren, 2024an izandako % 38,9ren gainetik.

Plazakako okupazio-maila ehuneko 0,2 puntutan gaintitu da 2024an lortutakoa; apartamentukako okupazio-maila, berriz, 5,2 puntutan; hala, 2025ean % 39,6an eta % 71,1ean finkatu dira, hurrenez hurren.

Euskal AEko **turismo-aterpetxeen** kasuan, **2025eko urteko balantzean**, urte arteko % 4,9ko hazkundea ikusten da sarreraren kopuruan eta % 4,6koa ostatu-gauen kopuruan, izan ere, urte osoa hartuta, 262.558 sarrera eta 473.449 ostatu-gau izan dira. Sarreraren urteko igoera % 86,2koa izan da Araban, % 6,3koa Gipuzkoan eta % 0,8koa Bizkaian.

Ostatu-gauek, bestalde, urte osoa hartuta, % 63,3 egin dute gora Araban, % 6,5 Gipuzkoan eta % 1,3 Bizkaian.

Euskal AEko aterpetxe turistikoetako sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak. 2025

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)	
							plazen arabera	
	2025	p/p-1 (%)	2025	p/p-1 (%)	2025	2024	2025	p.p. *
EUSKAL AE	262.558	4,9	473.449	4,6	1,80	1,81	38,9	0,6
Estatukoak	111.848	10,0	210.228	13,4	1,88	1,82	-	-
Atzerritarrak	150.710	1,5	263.221	-1,5	1,75	1,80	-	-
Araba/Álava	10.263	86,2	15.338	63,3	1,49	1,70	26,7	9,8
Estatukoak	7.869	56,7	12.355	47,3	1,57	1,67	-	-
Atzerritarrak	2.394	386,4	2.983	197,5	1,25	2,04	-	-
Bizkaia	142.867	0,8	267.715	1,3	1,87	1,87	43,6	0,2
Estatukoak	61.410	3,5	120.499	11,4	1,96	1,82	-	-
Atzerritarrak	81.457	-1,1	147.215	-5,7	1,81	1,90	-	-
Gipuzkoa	109.428	6,3	190.396	6,5	1,74	1,74	35,0	0,3
Estatukoak	42.569	14,0	77.373	12,4	1,82	1,84	-	-
Atzerritarrak	66.859	1,8	113.023	2,8	1,69	1,67	-	-

p/p-1: Azken aldian izandako urte arteko aldakuntza-tasa (p), aurreko urteko aldi berarekin alderatuta (p-1)

p.p.*= aurreko urteko aldi baliokidearekiko aldea ehuneko-puntutan

Data 2026ko Urtarrilaren 26a

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

2025eko abendua

Urteko azken hilabetea, 2025eko abenduan, Euskal AEko **landetxeetan** sarrerak eta ostatu-gauak % 36,2 eta % 23,8 murriztu dira, hurrenez hurren, aurreko urteko abenduan ikusitako datuekin alderatuta, eta 12.362n eta 26.509n kokatu dira, hurrenez hurren.

2025eko abenduan, sarreraren % 91,2 eta ostatu-gauen % 90,8 Estatutik etorritako pertsonen egindakoak izan dira.

Araban 3.267 sarrera erregistratu dira, aurreko urteko abenduan baino % 37,0 gehiago; Bizkaian 3.281, aurreko abenduan baino % 33,2 gehiago; eta Gipuzkoan 5.814 erregistratu ziren, 2024ko abenduan baino % 37,4 gehiago.

Ostatu-gauetako dagokienez, Araban % 2,3ko urte arteko igoera izan da, 6.060ra iritsita; Bizkaian 6.510 erregistratu dira —2024ko abenduan baino % 4,5 gehiago—, eta Gipuzkoan 13.939 —aurreko urteko hilabete berean baino % 50,6 gehiago—.

Euskal AEko landa-ostatueta sarrerak, ostatu-gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak. Abendua 2025

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		gelaka	
	2025/12	m/m-12 (%)	2025/12	m/m-12 (%)	2025/12	2024/12	2025/12	p.p. *	2025/12	p.p. *
EUSKAL AE	12.362	36,2	26.509	23,8	2,14	2,36	21,8	4,4	24,7	4,0
Estatukoak	11.271	36,8	24.060	29,4	2,13	2,26	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.091	29,9	2.449	-12,9	2,24	3,35	-	-	-	-
Araba/Álava	3.267	37,0	6.060	2,3	1,85	2,49	18,7	0,6	21,5	-1,5
Estatukoak	3.124	34,7	5.755	18,1	1,84	2,10	-	-	-	-
Atzeritarrak	143	120,0	305	-71,1	2,13	16,23	-	-	-	-
Bizkaia	3.281	33,2	6.510	4,5	1,98	2,53	19,8	1,4	21,6	0,6
Estatukoak	2.960	27,0	5.785	-0,9	1,95	2,50	-	-	-	-
Atzeritarrak	321	143,2	725	84,5	2,26	2,98	-	-	-	-
Gipuzkoa	5.814	37,4	13.939	50,6	2,40	2,19	24,8	8,4	28,4	9,3
Estatukoak	5.187	44,6	12.520	58,7	2,41	2,20	-	-	-	-
Atzeritarrak	627	-2,5	1.419	4,0	2,26	2,12	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabeteaz izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2026ko Urtarrilaren 26a

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Mota horretako establezimenduetan, Euskal AEko batez besteko egonaldia 2,14 egunekoa izan da abenduan, 2024ko hil berean ikusitako 2,36 egunekoa batez bestekoa baino zertxobait azpitik.

Plazen eta logelen arabera okupazio-mailek urte batetik bestera ehuneko 4,4 eta 4,0 puntu egin dute gora, hurrenez hurren; plazen arabera neurtuta % 21,8an kokatuz eta logelen arabera neurtuta % 24,7an.

Apartamentu turistikoei dagokienez, **2025eko abenduan** sarrerak eta ostatu-gauak 16.071 eta 59.448 izan dira, hurrenez hurren. Aurreko urteko abenduaren aldean, sarrerak % 8,6 igo dira eta ostatu-gauak % 9,2.

Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak. Abendua 2025

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		apartamenduka	
	2025/12	m/m-12 (%)	2025/12	m/m-12 (%)	2025/12	2024/12	2025/12	p.p. *	2025/12	p.p. *
EUSKAL AE	16.071	8,6	59.448	9,2	3,70	3,68	33,0	0,7	62,9	3,2
Estatukoak	11.584	4,9	41.064	6,3	3,54	3,50	-	-	-	-
Atzeritarrak	4.487	19,6	18.385	16,3	4,10	4,21	-	-	-	-
Araba/Álava	814	7,4	10.188	17,0	12,52	11,49	29,3	3,0	73,1	0,0
Estatukoak	719	3,9	7.325	25,1	10,18	8,46	-	-	-	-
Atzeritarrak	94	43,7	2.864	0,4	30,33	31,00	-	-	-	-
Bizkaia	11.470	8,6	29.137	17,0	2,54	2,36	31,8	0,7	52,0	10,4
Estatukoak	8.532	7,0	20.324	10,9	2,38	2,30	-	-	-	-
Atzeritarrak	2.938	13,6	8.813	34,4	3,00	2,54	-	-	-	-
Gipuzkoa	3.787	8,8	20.123	-3,4	5,31	5,98	37,4	-0,1	73,4	-2,2
Estatukoak	2.333	-2,0	13.415	-7,0	5,75	6,06	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.455	32,1	6.708	4,9	4,61	5,81	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hila bete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabeteaz izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hila bete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2026ko Urtarrilaren 26a

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Euskal AEko apartamentu turistikoetan izandako sarrera guztien % 27,9 eta ostatu-gau guztien % 30,9 atzerriko jatorriko bisitariei dagozkie, urte batetik bestera % 19,6ko eta % 16,3ko igoerak, hurrenez hurren, erregistratu ondoren.

Behatutako batez besteko egonaldia 3,70 egunekoa izan da 2025eko abenduan, 2024ko 3,68 egunekoa baino zertxobait luzeagoa. Lurralde historikoen arabera ikusita, batez besteko egonaldi hori 2,54 egunekoa izan da Bizkaian, 5,31 egunekoa Gipuzkoan eta 12,52 egunekoa Araban.

Plazen arabera okupazio-maila % 33,0koa izan da Euskal AEn, eta % 62,9a iritsi da apartamentuen arabera neurtuta. Horrek esan nahi du urte arteko hazkundea ehuneko 0,7 eta 3,2 puntukoa izan dela, hurrenez hurren.

Turismo-aterpetxeei dagokienez, **2025eko abenduan** sarrerak eta ostatu-gauak 9.269 eta 18.193 izan dira, hurrenez hurren. Aurreko urteko abenduarekin alderatuta, zifra horiek % 12,5eko igoera adierazten dute sarreren kasuan, eta % 16,2koa ostatu-gauen kasuan.

Plazakako okupazio-maila % 19,3koa izan da eta batez besteko egonaldia 1,96 egunekoa.

Euskal AEko aterpetxe turistikoetako sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak. Abendua 2025

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-maila plazaka (%)	
	2025/12	m/m-12 (%)	2025/12	m/m-12 (%)	2025/12	2024/12	2025/12	p.p.
EUSKAL AE	9.269	12,5	18.193	16,2	1,96	1,90	19,3	0,8
Estatukoak	4.967	15,1	9.395	10,8	1,89	1,97	-	-
Atzeritarrak	4.302	9,6	8.798	22,7	2,05	1,83	-	-
Araba/Álava	668	12,9	887	8,9	1,33	1,38	16,7	0,5
Estatukoak	487	-5,3	587	-20,3	1,21	1,43	-	-
Atzeritarrak	181	134,2	300	287,7	1,66	1,00	-	-
Bizkaia	4.850	13,6	9.228	10,7	1,90	1,95	19,7	1,2
Estatukoak	2.673	16,0	4.669	9,1	1,75	1,86	-	-
Atzeritarrak	2.177	10,9	4.559	12,3	2,09	2,07	-	-
Gipuzkoa	3.751	11,0	8.078	24,3	2,15	1,92	19,2	0,2
Estatukoak	1.807	20,9	4.139	19,5	2,29	2,32	-	-
Atzeritarrak	1.944	3,1	3.939	29,8	2,03	1,61	-	-

p.p.*= aurreko urteko hila bate berarekiko portzentaje zko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hila batean izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hila bate berarekin alderatuta (m-12)

Data 2026ko Urtarrilaren 26a

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Informazio-oharra

Landetxeetako Egoiliarren Turismo Inkestaren erantzun-tasa % **63,7**koa izan da, Apartamentu Turistikoetakoena % **83,1**koa eta aterpetxeen kasuan % **77,4**koa 2025eko abenduan.

Eustatek eskerrak eman dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Informazio gehiago:

- Taula estatistikoak: [\[ikus\]](#)
- Datu-bankua: [\[ikus\]](#)
- Grafikoak eta bistaratzeak: [\[ikus\]](#)
- Metodologia: [\[ikus\]](#)
- Definizioak: [\[ikus\]](#)
- Kodeak eta nomenklaturak: [\[ikus\]](#)
- Egutegia: [\[ikus\]](#)
- Prentsa oharrak: [\[ikus\]](#)